

LAMIAK

Nora Aiertza

Azpeitia

Mendian ibiltzea izugarri gustatzen zitzaion Izarri. Euri ala ateri, beti gustura. Egun argitsua zen, eta Izar, beti bezala, mendira zihoan. Saltoka eta brinkoka, eguzkiaren distiraz itsutu eta itzuli-purdika erori egin zen, hain zihoan pozik bera. Ez dakit zenbat txiribuelta eman zuen, zenbat sasiarte eta zelai zeharkatu, eta buelta bat eta bestea egin eta gero, basoaren erdian amaitu zuen. Galduta zegoen, eta hartutako kolpeengatik zorabiatuta antzean. Poltsikoan zeramatzan hurrei begiratu, eta bizpahiru kraskatu zitzaizkiola ohartu zen. Goroldioz eta hosto xamurrez bigundutako pago-sustraien magalean eseri zen, bere onera etor zedin. Eta orduan zerbait berezia gertatu zen.

Bat-batean, sagu txiki bat agertu zen hurren usnan; gero, luma urdineko kaskabeltz bat; eta azkenik, erbi bat. Izar txundituta zegoen, egundo halako gauza politik ez zuen ikusi. Horrenbestean liluratu zuen horrek, ezen denbora luzez txundituta gelditu zen, azkenean lo hartu arte. Esnatu zenean, hostoz eginiko ohe batean zegoen. Harrigarria

dirudien arren, haren ondoan, noiz esnatuko zain, untxi, erbi, sagu, satitsu, katagorri, kaskabeltz, txantxangorri, karnaba eta baita basakatu bat ere!

Begiak guztiz ireki zituenean, animalia liluragarrri haiek guztiek alde egin zuten. Eta orduantxe konturatu zen gau osoa pasatu zuela basoan! Ipar-orratzari begiratu eta segituan abiatu zen etxera.

—Non demontre ibili zara?!

—Basoan...

—Bai, noski, basoan, gau oso batez. Zu txantxetan zabilta, ala?

—Ez, benetan! Mesedez, sinets nazazue. Egia da, aita, ama!

—Bi astean etxetik atera ere ez zara egingo!

Izar haserre joan zen bere logelara, eta salto batez ohe gainean erori zen.

—Kax-kax! Sar daiteke? —galdetu zion ahizpa bikiak, Ainhoak.

—Bai.

—Zer gertatu da?

Horrela Izarrek kontatu zion istorio sinestezin hura.

—Benetan?

—Lasai, ni zu bezain harrituta nago eta.

—Ea, zer iruditzen zaizu, zigor-epea bukatzen denean, biok basora joatea?

—Ondo, baina aurretik bi aste egin beharko ditut zigortuta etxean...

Eta bi aste pasatu ziren horrela, asper-asper egin da; azkenean mendira joateko eguna ailegatu zen arte. Egun hartan txoriek argiago kantatzen zuten

eta hostoek ederrago dantzatzen zuten haizearekin.

—Hemendik behera erori nintzen, goazen!

Ingurua paregabea zen.

—Iño, hauxe ederra! —garrasi egin zuen Ainhoak.

—Bai, esango nuke, ba!

Txoko polit batean eroso eseri eta zerbait jaten hasi ziren. Berehala gerturatu zitzaizkien txori, sagu, suge, basakatu, basahuntz, orein, basurde... eta amona mantangorri bat ere bai. Sinesgaitza, animaliaz inguratuta zeuden.

—Zer da hori? —esan zuen Izarrek.

—Ur-hotsa dirudi; arraroa, hemen inguruan ibairik ez dago eta!

—Segi diezaiogun!

Bide luzea egin zuten aurrera, soinuaren norabidean. Azkenean iritsi ziren. Benetan ederra zen, arrain asko zeuden inguruan eta era guztiko animaliak zebiltzan inguruan.

—Igeri egin dezagun, Izar!

—Tira, ba!

Ordu batzuk geroago, ibaiaren bidean gorantz egin zuten iturburua jo arte.

—Hara! Ziur nago hortik jarraituz gero, laku handi-handi bat aurkituko dugula. Hortik zulo bat eginez, joan nahi duzu?

—Arriskutsua dirudi.

—Mesedez, Izar!

—Ondo da, zerbait gainera erortzen bazaigu, ziur zeure buru gogor horrek geldiaraziko duela!

Bat-batean ipar-haizea gozo-gozo altxatu zen, dantzan, poliki. Laster hostoek besotik heldu zioten elkarri korruan. Pixkanaka-pixkanaka handituz zihoan haize-zirimola, harik eta gaztetxoak erdian hartu zituen arte, horiek ere jira eta bira. Halako batean ur-zurrumbiloa ernetu zen lakuaren erdian, gero eta abiadura handiagoan. Laster zulo ilun bat ireki zen umeen oin azpian eta uretan ezkutatzen ikusi ziren azken aldiz.

Orduan, inork sinetsiko ez lukeen gauza pasatu zen. Tunelaz bestaldean mundu magiko bat aurkitu zuten ustekabeen: ipotx, lamia, basajauna... Parajea benetan ederra zen, bitxilorez beterik; estalaktita erraldoiak lurretik sabairaino altxatzen ziren; uraren distirak kobazuloko horma guztiak margotzen zituen. Edertasun horrek ez zion, ordea, gertatutakoari garrantzirik kendu.

—Ainhoa! Ondo zaude?

—Baietz uste dut, eta zu?

—Bai, ondo nago. Egon! Zer da hori?

—Zer da zer...?

Ezustean, inguratuta zeuzkan urak kolore berdea hartu zuen, eta gerora, marrazki bat sortzen hasi zen bertan. Zuhaitzak ziren, eta erdian bi emakume zeuden, biluzik, beren ile horia urrezko orraziez orrazten.

—Lamiak dira!

—Zaude! Marrazkia oraindik osatzen ari da... Ikusi al duzu hori, zeuk ere?

—Geu gara!

Eta orduan, dozena erdi lamia agertu ziren, eskutik heldu eta urperatu egin zituzten bi ahizpa bikiak, azkenean, ia konturatu gabe, lamia bihurtu zirelarik.

Handik aurrera, inork ere ez daki haietaz ezer.